

***Aste honetan, Aurrez Aurre deituko diogun elkarrizketa pertsonalizatu honetako laugarren protagonistarekin jarraituko dugu. Elkarrizketa honen bitartez, gure jokalariak gehiago ezagutu ahal izango dituzue eta saskibaloia batean nolakoak diren jakiteaz gain, hortik kanpo ere zer nolako gustuak dituzten jakin ahal izango duzue.***

***Aste honetako protagonista JOSEAN CAVADA izango da. Hona hemen, pibot Donostiarrarekin mantendu dugun aurrez aurrekoa:***



**FITXA PERTSONALA:**

**Izena: Jose Antonio**

**Abizenak: Cavada Ezquerro**

**Jaioitze data: 1989ko martxoaren 18an**

**Jaioterria: Donostia**

**Dorsala: 7**

**Postua: Pibota**

**Altura: 2,05 m**

**Pisua: 108 kg**

### ***1.- Noiz eta non hasi zinen saskibaloian jokatzeko? Ze oroitzapen dituzu?***

Gogoan daukat oso ume nintzenetik hasi nintzela Loiola Ikastolako lagunekin saskibaloian jolasten. Kirol pixka bat egiteagaitik hasi nintzen, ze egia esan, orduan ez zitzaidan gaur egun bezain beste gustatzen; urteekin kirol honetara zaletzen joan naiz. Oso gogoan ditud baita ere, ume denboran kalean jokatzeko genituen partiduak. Berdin zigun euria egin, elurra egin...gu berdin berdin aritzen ginen saskibaloian jokatzeko, momentu politak izan ziren.

### ***2.- Zein izan da saskibaloian ikusi duzun jokalaririk onena? eta zure idoloa?***

Nik sekula ikusi dudako jokalaririk ikusgarriena eta onena, dudarik gabe Michael Jordan izan da. Egiten zituenak inork gehiago ez dituela egingo iruditzen zait. Irabazle hutsa zen. Bestelakoan, idolo bezala ez dut sekula jokalaria erreferenterik izan, baina egia da jokalaria bat baino gehiago gogoko ditudala eta beti fijatu izan naizela beraien jokatu estiloan.

### ***2+1.- Jokalaria maniatikoa al zara? Ohitura bereziren bat ba al daukazu partida egunetan?***

Agian pertsona arraroa naizela esango duzue, baina ez naiz batere maniatikoa. Ez dut sekula

izan ohitura berezirik partida egunetan eta nire ezaugarrietako bat, lasaitasuna dela esango nuke. Jokalari asko oso urduri jartzen dira partida egunetan eta ni berriz, nahiko lasai mantentzen den jokalaria orietakoa naizela uste dut.

### ***3.- Ze musika entzuten duzu partida baten atarian?***

Lehen esan dudan moduan ohitura berezirik ez daukadanez, musikaren alorrean ere ez naiz batere maniatikoa. Hori bai Donostiatik Oñatiraino ia ordubeteko bidaia luzea daukadanez, bai gustatzen zaidala kotxean nijoan bitartean, irratiaren konpainia ondoan izatea. Bestela bakardadean sentitzen naiz (barreak). Irratiak, kotxean bakarrik joaten zarenean konpainia asko egiten du.

### ***4.- Saskibaloian bizi izan duzun momenturik onena? Eta txarrena?***

Nire ibilbidean zehar momentu on asko bizi izan ditut, baina bat aipatu beharra badago orain dela hiru urte bizi izandako bat aipatuko nuke. Azpeitiko Lan Mobel taldeaz LEB ligara igo gineneko momentua ahaztezina da niretzat. Jokalari bezela kirol lorpenak lortu ahal izatea eta kategoriaz igotzea lortu daitezkeen erronkarik politenak dira. Honekin batera ere, gazte mailetan Bartzelonan eman nituen urteak ere ez zaizkit sekula ahaztuko. F.C. Barcelona bezelako talde batean jolastu ahal izana, ohore bat izan da niretzat.

Eta momenturik txarrena, dudarik gabe orain bi urte izandako lesioa da. Lotailu gurutzatua eta meniskoa hautsi nituen eta mundua gainera erori zitzaidan. Momentu gogor horietan galdera asko egiten dizkiozu zure buruari; ondo errekueratuko al naiz? Lehengo berdina izango al naiz?... zorionez momentu gogor horiek pasa dira eta oso ondo errekueratu naizela esan dezaket.

### ***5.- Zer eskatuko diozu urte berriari?***

## **Aurrez Aurre...JOSEAN CAVADA-rekin**

Escrito por Aratz Losada

Miércoles, 30 de Enero de 2013 11:23 - Actualizado Lunes, 04 de Febrero de 2013 18:03

---

Eskatuko diodana diodan bakarra, gauzak orain arte bezela joatea da. Garaipen ugari lortuz eta bereziki lesioak errepeta diezagutela. Bi hauek betetzen badira, pozik egoten jarraitzeko motiboak izango ditugula uste dut.